

URDAIBAIKO BERTOKO NEKAZAL-HAZIEN BATZEAREN ESPERIENTZIA

LABURPENA

Urdaibaiko barietate lokalen bilketa eta berreskurapena 2001 urtean geroztik, 2003 urteraino oso positiboa izan da. Izan ere, hainbat barazki berreskuratzea lortu da; batzuk egunero kontsumitzen diren ortuariak dira (aza, uhazak, tomateak, babak, ilarrak...), baina beste batzuk aldiz, ia galdua dauden barazkiak ditugu, arbia delarik honen adibide; Urdaibai eskualde osotik soilik baserritar batek zeukan barazki honen haziak. Esperientzia honen helburua, hazi autoktonoak ez galtzea da, eta honetarako, berreskurazten diren haziekin, ekoizpena egin ohi da, gero hazi hauek eskualdeko feriatan saltzeko eta honela, baserritarren artean zabaltzeko. Azken urteetan egin izan diren ekoizpenetan, galtzagorriko boluntarioek parte hartu izan dute soilik, baina baserritarrek ere honetan parte hartzea da hurrengo urteetarako dagoen beste helburu bat.

SARRERRA

Haziak izaki biziak dira; jaiotze, hazitze, elikatu, arnasa hartu, ugaltze eta hil egiten diren izakiak dira. Horretaz gain, landare edo zuhaitzaren oinarria dira, eta ondorioz, gure eguneroko jakietan ditugun eta baratze eta soroetatik hartzen ditugun elikagaien oinarria ere badira.

Haziak ereitea eta hauek ematen dituzten laboreen bilketa egitea aspaldiko gauza da; nekazaritza jaiotze zenetik Mesopotamian, historiaurrean K:A VII mendean, gizonak erlazio estua izan zuen eta dauka haziekin, beraien elikabidea delako, errez kontserbatzen delako eta hurrengo urtean uzta bermatuko duen elementua delako. Horrela urteak joan eta urteak etorri, leku bakoitzean ezaugarri desiratuak eta egokiak zituzten landareak lortuz joan dira eta noski haziak ere. Hazi hauek, nahiz eta ezaugarri egokiak izan, ingurune horretara moldatuta dauden haziak dira eta hortaz barietate lokal bezala hartzen dira. Nekazal barietateak, nekazarien milaka urtetako lanari zor zaio; haziak aukeratu, eredu eta landare interesgarrien haziak aukeratu baitituzte.

Baina zer dira bertoko hazi autoktonoak?

- Interes sozial, kultural, ekonomiko eta ambientala duten ondare genetikoak dira.
- Haziaren biziraupena eta eboluzioa bultzatu duten hainbat gizakiren lana da.
- Ingurune honetara moldatutako haziak dira eta hortaz, bertoko klima, lurzorua, ingurunea eta paisaia laburbiltzen dute.

Azken urteetan barietate lokala duten haziak desagertzen ari dira; alde batetik bioteknologian nagusiak diren multinazionalak genetikoki eraldaturiko landareak produzitzen dituztelako eta ondorioz, janaria sortzeko eta kontsumitzeko modua aldatzen da baita ere. Bestalde, multinazional hauentzat, ohiko haziak errentagarriak ez direnez, baztertu egiten dituzte, eta nekazariei barietate lokaleko hazi hauek lortzea zailago egiten zaie. Guzti honek, barietate lokalen desagertzea ekarri du.

Gaur egun ikus daitekeen biodibertsitatearen galeraren aurrean, Urdaibaiko Galtzagorriak (Urdaibairen aldeko ingurumen boluntarioen federazioa) garrantzi soziala duten bi helburu jarri dute abian:

- Eskualdeko hazi autoktonoak begirunez hartzea eta berreskuratzea, elementu patrimonial bizitzat kontsideratzeko.
- Natura eta ekologiarekin errespetuosoak diren nekazal-ereduen alde egitea.

Bi helburu hauek, Urdaibaiko Nekazal-Hazi Autoktonoen Bankuaren ekimenean biltzen dira.

MATERIAL ETA METODOAK

Ikerketa area moduan, Busturialdeko eskualdea aukeratu dugu, hots, Urdaibaiko biosfera erreserban bilduta dauden udalerririk.

Udallerri bakoitzeko, bertoko haziak erabiltzen dituzten ortuzain aktiboak zeintzuk diren jakiteko, Loli Cal Odriozolak 1996.urtean egindako lanean: "Desarrollo Agrícola y Forestal Sostenible en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai , Potencialidad de su Implantación y de la Puesta en Marcha de una Etiqueta de Agricultura Ecológica Urdaibai" oinarritu gara. Lan honetatik, ortuariak dituzten pertsonen zerrenda bat egin zen, bakoitzak ze ortuari zeukan eta etxeko haziak erabiltzen zuen edo ez adierazten zuena.

Zerrenda honetatik abiatuta, baserriz baserri jo da, bertako haziak erabiltzen dituzten baserritarren bila, baina arazo batekin aurkitu gara; baserritar gehienak jada jubilatuak daudela eta ondorioz lanari utzi diotela. Orduan, galdetzeari ekin diogu jakiteko, inguru horretan ortuariak nork dituen eta horrela haziak bildu dira.

Haziak bilduz joan ahala, gardena ez den gutunazala erabili da gordetzeko. Gutunazalak 15 cm x 10 cm-ko neurriak dauzka. Gutunazalaren alde batean haziaren bilketaren ezaugarri batzuk jarri dira:

- Hazi biltzailea

- Izen arrunta
- Jasotako lekua
- Jasotako data
- Gutunazal zenbakia
- Hazia eman duen pertsonaren izena

Haziaren eta landarearen ezaugarriak ezagutzeko inkesta bat bete da, ondoko datuekin:

- Landarearen izena
- Landarearen ezaugarriak
- Fruituaren ezaugarriak
- Haziaren ezaugarriak eta haziak biltzeko metodoak
- Zertarako erabiltzen diren

Haziak bilduta gero, kopuru bat, Euskal Herriko hazien bankura bidali dira ENHE sindikatuaren bidez eta beste zati bat "Galtzagorrietan" geratu da.

Galtzagorrietan geratu den hazi kopuru honekin bi helburu bete nahi dira:

- Bildu diren bertoko hazi autoktonoak ekoiztea. Helburu honetarako, bildu diren haziak, taldeko boluntarioen artean banatu dira hazi berriak ateratzeko.
- Ekoiztutako hazi autoktonoak feriatan saltzea eta horrela baserritarren artean haziak banatzea.

EMAITZAK

2001 urtetik geroztik, 2003 urteraino bildu izan diren hazi moten taula egin da, urte bakoitzean bildutako hazia eta barietatea agertzen direlarik.

1.taula: 2001 urtean berreskuratutako hazien taula.

Barazkia(hazi mota)	Barietatea	Izen zientifikoa
Tomatea	Entsalada	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	Pikoluze	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	"Limonero"	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	Lila	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	Eskegitekoa	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	"Rizado"	Lycopersicum lycopersicon L.
Zerba		Beta vulgaris L. Forma cycla

2.taula: 2002 urtean berreskuratutako hazien taula.

Barazkia(hazi mota)	Barietatea	Izen zientifikoa
Piperra	Italianoa/ kristal	Capsicum annum L.
Piperra	Morrona/ handia	Capsicum annum L.
Tomatea	Eskegitekoa	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	Morea	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea>	"Limonero"	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	Pikoluze	Lycopersicum lycopersicon L.
Uhaza	"Rizada"	Lactuca sativa L.
Uhaza	"Maravilla"	Lactuca sativa L.
Azenahorioa		
Ilarra		Pisum sativum L.

3.taula: 2003 urtean berreskuratutako hazien taula.

Barazkia(hazi mota)	Barietatea	
Aza	Negukoa /gabonetakoa	Brassica oleracea L. vars
Baba	Baba txikia	Vicia faba L.
Artoa	Animalientzako	Zea mays
Artoa	Jatekoa	Zea mays
Kalabaza	Jatekoa	Cucurbita sp.
Kalabaza	Animalientzakoa	Cucurbita sp.
Perrexila		Petroselinum hortense Hoffmann
Arbia	Zuria	Brassica rapa L. Var rapa L
Indaba	Handia /"fabada asturiana"	Phaseolus vulgaris
Indaba	Burgosekoa	Phaseolus vulgaris>
Indaba	Tolosarra	Phaseolus vulgaris
Indaba	Gorri- iluna	Phaseolus vulgaris
Zilantroa		Coriandrum sativum
Kipula	Gorria	Allium cepa L
Naboa		Brassica rapa L. Var rapa L
Aza		Brassica oleracea L. vars

Zerba		Beta vulgaris L. Forma cycla
Baina		Phaseolus vulagri
Uhaza	Arabarra (gorria)	Lactuca sativa L.

Bestetik, 2001 , 2002 urteetan bildutako haziekin ekoizpena egin izan da hazi hauek feriatan saltzeko eta inguruko baserritarren artean zabaltzeko asmoz. Ondoko tauletan 2001 eta 2002 urteetako haziekin egindako ekoizpenak agertzen dira.

4.taula: 2001 urtean egindako ekoizpena.

Barazkia(Hazi mota)	Barietatea	Izen zientifikoa
Tomatea	Entsalada	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	"Rizado"	Lycopersicum lycopersicon L.
Zerba		Beta vulgaris L. Forma cycla

5.taula: 2002 urtean egindako ekoizpena

Barazkia (hazi mota)	Barietate	Izen zientifikoa
Tomatea	Eskegitekoa	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	Lila	Lycopersicum lycopersicon L.
Piperra	Handia/ morrona	Capsicum annum L.

6.taula: 2003 urtean egindako ekoizpena

Barazkia (hazi mota)	Barietatea>	Izen zientifikoa
Tomatea	Lila	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	Pikoluze	Lycopersicum lycopersicon L.
Tomatea	Entsalada	Lycopersicum lycopersicon L.
Zerba		Beta vulgaris L. Forma cycla
Iarrak		Pisum sativum L.

7.taula: 2004 urterako egingo den ekoizpena

Barazkia (hazi mota)	Barietatea	Noizko?
Arbia	Animali kontsumoa	2003-2004

Giza kontsumoa		
Artoa	Giza kontsumoa	2004-2005
Animali kontsumoa		
Tomatea	Peraduna gorria	2004
Peradun morea		
Morea		
Piperra	Handia/morroia	2004
Kalabaza	Giza kontsumoa	2003
Animali kontsumoa		
Kipula	Gorria	2003-2004
Bainak		2003
Aza		2003-2004
Indabak	Handia/asturiarra	2004
Zerba		2004
Babak	Txikia	2004

ONDORIOAK

Esperientzia hau egin ondoren ondoko puntuetan laburbiltzen diren ondorioak atera izan dira:

Barazki batzuetan zaila da hazi garbia ateratzea adibidez uhaza eta orduan ortuzainek hazi hauek erosi egiten dituzte, merkatuan haziek prezio nahiko baxua baitaukate.

Merkatuan dauden hazien prezioa baxua izateaz gain, gehienak genetikoki aldatutako haziak dira (hibridoak) adib, izurriteen kontrako erresistentziak dituzte, zati jangarriaren tamaina handiagoa dute e.a. eta ortuzaintzako hauek erakargarriagoak dira betidanik erabili izan direnak baino, alde batetik, izurriteen kontrako botikarik erosi behar ez dutelako eta bestetik, hazi kopuru gutxiago batekin tamaina handiagoko barazkiak lortzen dituztelako.

Barazki batzuk, adibidez perrexila, zerbak, kipulak, porruak e.a. haziak lehertu egiten dira eta beraz ez da beharrezkoa haziak batzea, gordetzea eta berriro ereitea, bertan gerazten direlako eta hurrengo urtean berriro atera.

Erabiltzen dituzten hazi moten artean gehienak indabak, azak, kipula, porrua, tomateak, piperra, ilarrak dira, hauek baitira gehien kontsumitzen direnak.